

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Parlamentuko lehendakariak eginiko proposamena, Nafarroako Parlamentuaren webgune ofizialean “Parlamentu Irekia” herritarrek parte hartzeko gunea ezartzekoa, ERABAKI DA:

1. Baimena ematea Nafarroako Parlamentuaren webgune ofizialean “Parlamentu Irekia” herritarrek parte hartzeko gunea ezartzeko eta Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Zerbitzu Orokorretako buruari agintzea beharrezkoak diren jarduketak egin ditzaten gune hori abian jartzeko.

2. Erabaki hau Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Zerbitzu Orokorretako Zerbitzuko buruari jakinaraztea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

LEHENDAKARIA

Alberto Catalán Higuera